Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko martxoaren 10a, asteazkena — 46 — Miércoles, a 10 de marzo de 2021

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA

*309/2021 Foru Agindua, otsailaren 22koa, erizainen lan-poltsa sortzeko deialdi publikoa egiten duena.*

Departamentuko foru diputatuak honako agindu hau eman du 2021eko otsailaren 22an:

Urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma-egoera deklaratu zen (2021eko maiatzaren 9ra arte luzatu zen azaroaren 3ko 956/2020 Errege Dekretuaren bidez) SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko, kontuan hartuta diagnostikatutako kasuen kopuruaren goranzko joera eta patologia horren arretari lotutako asistentzia presioaren gehikuntza.

12. artikuluan ezartzen da administrazio bakoitzak indarrean dagoen legeriak ematen dizkion eskumenak gordeko dituela beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko, eta, orobat, bere zerbitzuak nahiz langileak kudeatzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren adinekoentzako zentroetan osasun langileen arloko giza baliabideak indartu behar dira, besteak beste, erizainenak, eta, beraz, asistentzia premien arabera langile horien sarbidea errazteko, ezinbestekoa da ezohiko hautaketa prozedura bat egitea aldi baterako behar horri erantzuteko.

Egoki da, beraz, erizainen hautaketa-prozesua deitzea, zeinaren bidez deialdian eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten izangaiak bi lehentasun-taldetan egituratuko baitira, hau da erizain-lanpostuetan Administrazio Publikoan esperientzia egiaztatua dutenena.

Hori dela eta, eta 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak 42.l) artikuluan, alde batetik, eta urriaren 20ko 17/2020 Foru Dekretuak, Gobernantza Departamentuko egitura organikoari eta, bestetik, funtzionalari buruzkoak, 3.2 eta 9.r) artikuluetan emandako eskumenak erabiliz, foru diputatu honek

EBAZTEN DU

*Lehenengo:* Deialdi publikoa egitea erizainen lan poltsa bat eratzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren adinekoentzako zentroetan koronabirusak eragindako pandemiaren (Covid-19) ondorioz sortutako beharrei erantzuteko.

*Bigarren:* Onestea deialdiaren oinarriak eta eskaera eredua, foru agindu honen eranskinen arabera.

*Hirugarren:* Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek foru agindu honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA

*Orden Foral 309/2021, de 22 de febrero, por la que se efectúa convocatoria pública para la creación de una bolsa de trabajo de enfermero/a.*

La diputada foral del Departamento, con fecha 22 de febrero de 2021, ha dictado la siguiente orden:

Mediante Real Decreto 926/2020, de 25 de octubre, se declaró el estado de alarma (prorrogado hasta el 9 de mayo de 2021 por el Real Decreto 956/2020, de 3 de noviembre) para contener la propagación de infecciones causadas por el SARS-CoV-2, a la vista de la tendencia ascendente en el número de casos diagnosticados y el incremento de la presión asistencial vinculada a la atención de esta patología.

En el artículo 12 establece que cada Administración conservará las competencias que le otorga la legislación vigente, así como la gestión de sus servicios y de su personal, para adoptar las medidas que estime necesarias.

En los centros para personas mayores de la Diputación Foral de Gipuzkoa, se precisa reforzar los recursos humanos de personal sanitario, entre otros, de personal de enfermería, y, por tanto, al objeto de facilitar la incorporación de este personal en función de las necesidades asistenciales, se considera imprescindible realizar un procedimiento selectivo extraordinario para cubrir dicha necesidad temporal.

Procede, por tanto, convocar el correspondiente proceso selectivo, en el que el personal aspirante que cumpla con los requisitos exigidos en la convocatoria, se estructurará en dos grupos de preferencia diferenciados por la acreditación o no de experiencia en la Administración Pública en puestos de enfermero/a.

Por todo lo cual y en uso de la competencia que le atribuye el artículo 42.l) de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno, y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y los artículos 3.2 y 9.r) del Decreto Foral 17/2020, de 20 de octubre, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza, esta diputada foral

RESUELVE

*Primero:* Efectuar la convocatoria pública para la creación de una bolsa de trabajo para atender las necesidades de personal de enfermería derivadas de la pandemia por coronavirus (Covid-19) en los centros para personas mayores de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

*Segundo:* Aprobar las bases y la instancia que rigen la convocatoria y que se acompañan como anexos a la presente orden foral.

*Tercero:* Publicar la presente orden foral en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

JAKIb7e2d37e-a7da-44fe-a5d2-9491b7dbaa96
EK\CV GAO-I-2021-01419

Hala ere, interesdunek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko foru diputatu honi, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Hau guztia denen jakinaren gainean jartzen da.

Donostia, 2021eko otsailaren 24a.—Alfonso Acarreta Rodríguez, Departamentuko idazkari teknikoa. (1419)

*Erizainen lan poltsa eratzeko hautaketa prozesuaren oinarri arautzaileak. B2021/C01.*

1. *Oinarrien xedea.*

Oinarri hauen xedea da arautzea Gipuzkoako Foru Aldundian erizainen aldi baterako beharrei erantzuteko lan poltsa eratzeko hautaketa prozesua, behin-behineko programetan edo lanpostuetan bitarteko funtzionarioak izendatuz.

Programa edo lanpostu horiei dagokien urteko ordainsari gordina 42.710,72 euro da.

2. *Parte hartzeko baldintzak.*

Hautaketa prozesuan parte hartzeko, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean, eta prozesu osoan zehar, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) 16 urte beteak edukitzea eta derrigorrez erretiratzeko adina ez gainditzea.

b) Europako Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea edukitzea, edo Europako Batasunak egin eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenen bidez langileen zirkulazio askea duten estatuetakoa izatea.

Era berean, Europar Batasuneko estatu kideetako nazionalen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, duten nazionalitatea dutela, baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude, eta baita nazionalitate hura dutenen ondorengoak eta haren ezkontide zuzenbidez banatu gabearen ondorengoak ere, 21 urte baino gutxiago badituzte, edota gehiago izanik ere haien kontura bizi badira.

c) Erizaintzako unibertsitate gradua edo diplomatura titulua izatea, edo titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria izatea.

Atzerriko titulazioen kasuan, homologatuta daudela egiaztatzen duen agiria eduki beharko da.

Baldintza hori ez zaie eskatuko beren kualifikazio profesionala, lanbide arautuen esparruan, Europako Batasuneko Zuzenbideko xedapenen babesean aitortua duten izangaiei. Izangaiei dagokie aitorpen hori egiaztatzea.

d) Diziplina espedienteen bitartez inolako herri administrazioren zerbitzutik baztertuta edo herri eginkizunak burutzeko ezgaiturik ez egotea.

Beste estatu bateko nazionalitatea izanez gero, ezgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, ezta diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea ere, dagokion estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.

e) Lanak egiteko gaitasun funtzionala izatea, eta lan hori egitea eragozten duen gaixotasunik edo muga fisiko edo psikikorik ez izatea. Betekizun hori 10. oinarrian ezarritakoaren arabera egiaztatuko da.

No obstante, las personas interesadas, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante esta diputada foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para conocimiento general.

San Sebastián, a 24 de febrero de 2021.—El secretario técnico del Departamento, Alfonso Acarreta Rodríguez. (1419)

*Bases reguladoras del proceso de selección para la creación de una bolsa de trabajo de enfermero/a. B2021/C01.*

1. *Objeto de las bases.*

Es objeto de las presentes bases regular la convocatoria del proceso selectivo para la creación de una bolsa de trabajo destinada a satisfacer las necesidades de carácter temporal de personal enfermero en la Diputación Foral de Gipuzkoa, mediante el nombramiento de personal funcionario interino en programas temporales, o en puestos de trabajo.

Las retribuciones anuales correspondientes a dichos programas o puestos son de 42.710,72 euros brutos anuales.

2. *Condiciones de participación.*

Para tomar parte en el proceso selectivo se deberán reunir en la fecha en que finalice el plazo de presentación de solicitudes, y mantener durante todo el proceso, los siguientes requisitos:

a) Tener cumplidos 16 años de edad y no exceder de la edad máxima de jubilación forzosa.

b) Tener la nacionalidad de alguno de los Estados miembros de la Unión Europea, o ser nacional de algún Estado al que, en virtud de la aplicación de los Tratados Internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por el Estado Español, le sea de aplicación la libre circulación de trabajadores.

También podrán participar, cualquiera que sea su nacionalidad, el/la cónyuge de los/as nacionales de los Estados miembros de la Unión Europea, siempre que no esté separado/a de derecho, así como sus descendientes y los/as de su cónyuge, siempre, asimismo, que ambos/as cónyuges no estén separados/as de derecho, sean estos/as descendientes menores de 21 años o mayores de dicha edad que vivan a sus expensas.

c) Estar en posesión del grado universitario o diplomatura en enfermería o del certificado de haber abonado los derechos para su expedición.

En el caso de titulaciones extranjeras se deberá estar en posesión de la credencial que acredite su homologación.

Este último requisito no será de aplicación a las personas aspirantes que hubieran obtenido el reconocimiento de su cualificación profesional, en el ámbito de las profesiones reguladas, al amparo de las disposiciones de Derecho Comunitario. Corresponde a las personas aspirantes acreditar dicho reconocimiento.

d) No haber sido separado/a mediante expediente disciplinario del servicio de ninguna Administración Pública, ni hallarse inhabilitado/a para el ejercicio de funciones públicas.

En el caso de ser nacional de otro Estado, no hallarse inhabilitado/a o en situación equivalente ni haber sido sometido/a a sanción disciplinaria o equivalente que impida, en su Estado, en los mismos términos el acceso al empleo público.

e) Poseer la capacidad funcional para el desempeño de las tareas y que no se padece enfermedad o limitación física o psíquica que impida ese desempeño. Este requisito se acreditará conforme a lo establecido en la base 10.

JAKIb7e2d37e-a7da-44fe-a5d2-9491b7dbaa96
EK\CV GAO-I-2021-01419

*3. Harremanetarako bitarteko elektronikoak erabiltzeko betebeharra.*

3.1. Aplikatu beharreko araua.

Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko foru diputatuaren abenduaren 18ko 1556/2018 Foru Aginduak ezartzen duen bezala (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 247 zk., 2018ko abenduaren 26koa, eta akats zuzenketa, Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 31. zk., 2019ko otsailaren 14koa), izangaiek bitarteko elektronikoez egin beharko dituzte hautaketa prozesu honekin zerikusia duten izapide guztiak.

Zehazki, izangaiek izapide hauek egin beharko dituzte bitarteko elektronikoen bidez:

a. Parte hartzeko eskaera eta harekin batera doan dokumentazioa aurkeztea.

b. Akatsak edo hutsegiteak zuzentzea.

c. Errekurtsoak eta erreklamazioak aurkeztea.

d. Hautaketa prozesuarekin lotutako beste edozein izapide egitea idatziz edo edozein dokumentazio aurkeztea.

Izapide horiek egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza elektronikoko erregistro elektronikoa erabiliko dute izangaiek: https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu.

Ez da onartuko deialdiarekin zerikusia duten agiriak paperean aurkeztea. Parte hartzeko eskaera edo deialdiarekin zerikusia duen edozein agiri ez bada bitarteko elektronikoen bidez aurkezten, bitarteko elektronikoen bidez aurkeztutako datan aurkeztutakotzat joko da ondorio guztietarako.

3.2. Onartutako ziurtagiriak.

Adierazitako izapideak egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartzen dituen sinadura elektronikoko ziurtagiriak erabili beharko dituzte izangaiek, besteak beste hauek: (https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/egoitzarako-sarrera).

a) Izenpek emandako pertsona fisikoen ziurtagiriak, B@kQ barne (Gipuzkoako Foru Aldundiko enplegatuaren identifikazio txartelean sinadura elektronikoa dutenek sinadura hori erabili ahal izango dute).

b) Camerfirma SAk emandako pertsona fisikoen ziurtagiriak.

c) Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalak (FNMT) software formatuan emandako sinadura elektronikoko ziurtagiriak (pertsona fisikoarenak).

d) NAN elektronikoa.

3.3. Komunikazioak eta jakinarazpenak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Epaimahai Kalifikatzaileak bitarteko elektronikoak erabiliko dituzte izangaiekin harremanetan jartzeko. Horrela, deialdiaren ondoriozko jarduketak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko iragarki taulan argitaratuko dira, nahiz eta, oinarri hauetan xedatutakoaren arabera, beste bitarteko batzuk ere erabil daitezkeen.

Orobat, egintzen eta ebazpenen jakinarazpen indibidualak egin behar badira, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko jakinarazpen elektronikoen postontziaren bidez gauzatuko dira. Kasu horretan, izangaiak abisu bat jasoko du Herritarren Datuen Foru Erregistroan unean-unean agertzen den helbide elektronikoan, informatzeko jakinarazpen bat duela Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan. Helbide elektroniko hori aldatu nahi izanez gero, Herritaren Datuen Foru Erregistroan sartu behar da https://egoitza.gipuzkoa.eus/HDFE eta bertan aldatu.

Deialdiari buruzko informazio orokorra eskuratu ahal izango dute interesdunek Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Baliabideetako Ataleko telefono hauetan: 943.112.615 eta 943.112.617.

*3. Obligación de relacionarse por medios electrónicos.*

3.1. Norma aplicable.

De conformidad con la Orden Foral 1556/2018, de 18 de diciembre, del diputado foral de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 247, de 26 de diciembre de 2018. Corrección de errores: Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 31, de 14 de febrero de 2019), las personas aspirantes están obligadas a realizar por medios electrónicos todos los trámites relacionados con el presente proceso selectivo.

En concreto, las personas aspirantes deberán realizar por medios electrónicos los siguientes trámites:

a. La presentación de la solicitud de participación, junto con la documentación que se acompañe a la misma.

b. La subsanación de defectos u omisiones.

c. La interposición de recursos y reclamaciones.

d. Cualquier otro trámite escrito o presentación de documentación relacionado con el proceso selectivo.

Para su realización, las personas aspirantes utilizarán el registro electrónico de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa: https://egoitza.gipuzkoa.eus/es.

No se admitirá la presentación en papel de ningún documento relacionado con la convocatoria. La presentación de la solicitud de participación o de cualquier otro documento relacionado con la convocatoria por medios no electrónicos se tendrá por presentado, a todos los efectos, en la fecha de su presentación por medios electrónicos.

3.2. Certificados admitidos.

Para realizar los trámites indicados las personas aspirantes deberán utilizar los certificados de firma electrónica admitidos por la Diputación Foral de Gipuzkoa, entre ellos los siguientes (https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/acceso-sede):

a) Los certificados de persona física emitidos por Izenpe, incluida la B@kQ (aquellas personas que tengan incorporada la firma electrónica en la tarjeta de identificación de empleado/a de la Diputación Foral de Gipuzkoa podrán utilizar dicha firma).

b) Los certificados de persona física emitidos por Camerfirma, S.A.

c) Los certificados (de persona física) de firma electrónica en formato software de la Fábrica Nacional de Moneda y Timbre (FNMT).

d) DNI electrónico.

3.3. Comunicaciones y notificaciones.

La Diputación Foral de Gipuzkoa y el Tribunal Calificador se relacionarán con las personas aspirantes por medios electrónicos. De este modo, las actuaciones que se deriven de la convocatoria se publicarán en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, sin perjuicio de su publicación en otros medios de conformidad con lo dispuesto en las presentes bases.

Asimismo, cuando así corresponda, las notificaciones individuales de actos y resoluciones se practicarán a través del buzón de notificaciones electrónicas de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa. En este caso, la persona aspirante recibirá en la dirección de correo electrónico que en cada momento figure en el Registro Foral de Datos Ciudadanos un aviso informándole de la puesta a disposición de una notificación en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Si se desea modificar dicha dirección de correo electrónico, se debe acceder al Registro Foral de Datos Ciudadanos a través del enlace señalado a continuación y modificarla: https://egoitza.gipuzkoa.eus/RFDC.

La información general de la convocatoria estará a disposición de las personas interesadas en los siguientes teléfonos de la Sección de Recursos Humanos y Planificación de la Diputación Foral de Gipuzkoa: 943.112.615 y 943.112.617.

JAKIb7e2d37e-a7da-44fe-a5d2-9491b7dbaa96

EK\CV GAO-I-2021-01419

*4. Hautaketa prozesuan parte hartzeko eskaerak eta epea.*

Hautaketan parte hartzeko eskaerak, behar bezala beteta, Gobernantza Departamentuko foru diputatuari zuzendu behar zaizkio eta eskatzaileek 2. oinarrian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute.

Eskaerak aurkeztu ahal izango dira deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita 10 egun balioduneko epearen barruan.

Izapide horiek egiteko prestatutako inprimaki elektronikoa erabiliko dute izangaiek; eskuragarri egongo da egoitza elektronikoko «Enplegu Publikoa» atalean: https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/enplegu-publikoa.

*5. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.*

Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira nahitaez:

1. Indarrean dagoen nortasun agiri nazionalaren kopia edo dokumentu baliokidea atzerritarra izanez gero.

2. Deialdian parte hartzeko eskatzen den titulu akademiko ofizialaren fotokopia, edo hura eskuratzeko eskubideak ordainduta edukitzea egiaztatzen duen ziurtagiria.

3. Edukiz gero, euskarako hizkuntza eskakizunaren edo ziurtagiri baliokide egiaztatuaren kopia.

4. Administrazio publikoan erizain gisa izandako esperientzia egiaztatzen duen ziurtagiriaren fotokopia, organo eskudunak emana, eta honako hauek jasotzen dituena: lan-lotura, sailkapen-taldea eta lan egindako aldia.

Gipuzkoako Foru Aldundiko espediente pertsonalean dagoeneko jasota dauden agiriak ez dira aurkeztu behar; horrelakoetan, kontuan har daitezen, nahikoa izango da epe barruan alegatzea.

Espediente pertsonala da Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerbitzura lan egin duten edo lan egiten ari diren pertsonen espedientea.

*6. Izangaiak onartzea.*

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, Gobernantzako foru diputatuak izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendak onartuko eta argitaratuko ditu egoitza elektronikoko iragarki taulan eta 4. oinarrian adierazitako «Enplegu publikoa» atalean.

Zerrenda horietan izangaien izena eta bi abizenak agertuko dira, baita beren nortasun agiri nazionalaren edo agiri baliokide baten lau zenbaki ausazko ere. Onartu ez izanaren arrazoiak ere adieraziko dira, halakorik badago.

Zerrenda horretan baztertutzat ageri diren pertsonek 5 egun balioduneko epea izango dute, argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, baztertze hori eragin duten akatsak edo hutsegiteak konpontzeko edo zerrenden kontrako erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da, besterik gabe. Erreklamazioak aurkezten badira, horiek baietsi edo ezetsi egingo dira behin betiko zerrenda ere onartuko duen ebazpenaren bitartez. Behin betiko zerrenda ere lehen aipatu den bezala argitaratuko da.

*7. Epaimahai Kalifikatzailea.*

Epaimahai kalifikatzailea honela osatuta egongo da:

Lehendakaria:

— Aitor Leturiondo Odriozola, Funtzio Publikoko zerbitzuburua, titular gisa, eta Lourdes Ezeiza Telleria, Langileen Kudeaketako atalburua, ordezko gisa.

*4. Presentación de solicitudes de participación y plazo.*

Las solicitudes instando tomar parte en el proceso selectivo, debidamente cumplimentadas, se dirigirán a la diputada foral del Departamento Gobernanza, debiendo hacerse constar en las mismas por las personas solicitantes que reúnen todas y cada una de las condiciones exigidas en la base 2.ª

Las solicitudes podrán presentarse en el plazo de 10 días hábiles, contados a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Para su realización las personas aspirantes utilizarán el formulario electrónico elaborado al efecto, que estará disponible en el apartado «Empleo Público» de la sede electrónica: https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/empleo-publico.

*5. Documentación a adjuntar con la solicitud.*

Deberá presentarse necesariamente la siguiente documentación:

1. Fotocopia del Documento Nacional de Identidad o documento equivalente en caso de ser persona extranjera, ambos en vigor.

2. Fotocopia del título académico oficial exigido para participar en la convocatoria o del certificado de haber abonado los derechos para su expedición.

3. En caso de poseerlo, fotocopia del certificado del perfil lingüístico de euskera o equivalente.

4. Fotocopia del certificado acreditativo de la experiencia como enfermero/a en la Administración Pública, expedido por el órgano competente, en el que conste: vínculo laboral, grupo de clasificación y período trabajado.

No será preciso aportar los documentos que ya obren en el expediente personal de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en cuyo caso bastará su alegación en plazo para ser tenidos en cuenta.

El expediente personal se refiere al expediente de las personas que hayan prestado o presten servicios en la Diputación Foral de Gipuzkoa.

*6. Admisión de personas aspirantes.*

Expirado el plazo de presentación de solicitudes, la diputada foral del Departamento de Gobernanza aprobará y publicará las listas provisionales de personas aspirantes admitidas y excluidas en el tablón de anuncios de la sede electrónica y en el apartado «Empleo Público» indicado en la base 4.ª

En estas listas constará el nombre y dos apellidos de las personas junto con cuatro cifras numéricas aleatorias del documento nacional de identidad o documento equivalente y, en su caso, la causa de la no admisión.

Las personas que figuren excluidas en la referida lista dispondrán de un plazo de 5 días hábiles, contados a partir del día siguiente al de su publicación, para la subsanación de los defectos u omisiones que hubieran motivado la exclusión o para plantear reclamaciones contra las listas.

Las listas provisionales se entenderán automáticamente elevadas a definitivas si no se presentaran reclamaciones. Si las hubiere, serán estimadas o desestimadas en una nueva resolución por la que se aprueben las listas definitivas, la cual se hará pública de la misma forma que la anterior.

*7. Tribunal Calificador.*

La composición del Tribunal Calificador será la siguiente:

Presidente/a:

— D. Aitor Leturiondo Odriozola, jefe de Servicio de Función Pública, como titular, y Dña. Lourdes Ezeiza Tellería, jefa de Sección de Gestión de Personal, como suplente.

JAKIb7e2d37e-a7da-44fe-a5d2-9491b7dbaa96
EK\CV GAO-I-2021-01419

Batzordekideak:

— Lourdes Sanjuan Artegain andrea, Giza Baliabideetako eta Plangintzako atalburua, titular gisa, eta Matilde Corral Alza, Giza Baliabideetako eta Plangintzako Ataleko Kudeaketako erdi mailako teknikaria, ordezko gisa.

— Jaione Arregui Arteche andrea, Egogain Zentroko erizana, titular gisa eta Begoña Gutierrez Eizaguirre andrea, Egogain Zentroko zuzendaria, ordezko gisa.

Idazkaria:

— Alfonso Acarreta Rodríguez jauna, Gobernantza Departamentuko idazkari teknikoa, titular gisa, eta Mikel Ulazia Etxabe jauna, Gobernantza Departamentuko Administrazio Orokorreko teknikaria, ordezko gisa.

Epaimahai Kalifikatzailea prozesuaren garapenaz eta merezimenduen balioespenaz arduratuko da.

Epaimahaiak erabaki dezake bere jardunerako aholkulari espezialisten laguntza eskatzea. Aholkulari espezialistek hitza bai baina ez dute botorik izango, eta haien lana mugatuko da Epaimahaiari laguntzera, beren espezialitate teknikoetan.

Epaimahaiak, oinarri hauetan ezarritakoaren kaltetan izan gabe, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeko 15. artikulutik 19. artikulura ezarritako arauetara egokituko du bere jarduketa.

Epaimahaiak jarduteko autonomia osoa izango du, prozesua objektibotasunez garatzen dela zainduko du, eta deialdiaren oinarriak betetzen direla bermatuko du. Bere jarduketetan independentziaren eta diskrezionalitate teknikoaren irizpideak betetzen direla bermatuko du.

Era berean, ordenamendu juridikoari jarraituz, epaimahaiak oinarri hauen aplikazioz sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu, eta deialdiaren garapen egokirako beharrezkoak diren erabaki guztiak hartuko ditu, oinarrietan aurreikusi ez diren egoeren aurrean jarraitu beharreko irizpideak ezarriz.

Hautapen prozesuaren edozein unetan, epaimahaiak jakiten badu dagokion deialdian parte hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen ez dituen izangairen bat dagoela, interesdunari entzunaldia eman ondoren, izangai hori kanporatzea proposatu behar du, hautapen prozesuan parte hartzeko eskaeran hark jarritako okerrak edo faltsukeriak adierazita.

Epaimahaiak, prozesuan, jatorrizko dokumentuak eska ditzake; bai eta, zalantzarik izanez gero, merezimenduak behar bezala balioesteko eta/edo baldintzak betetzen direla egiaztatzeko beharrezko jotzen duen beste edozein dokumentu ere.

Komunikazioetarako eta gainerako gorabeheretarako, epaimahai kalifikatzailearen egoitza Funtzio Publikoko Zerbitzuan egongo da, Donostiako Gipuzkoa plaza z.g. helbidean.

*8. Hautaketa prozedura.*

Hautaketa prozedura merezimenduen lehiaketa bidezkoa izango da.

8.1. Administrazio Publikoan emandako zerbitzuak.

Gehienez ere 180 puntu emango dira, eta puntu 1 emango da hilabeteko (30 egun), administrazio publiko batean erizain lanpostuetan, karrerako funtzionario, bitarteko edo lan kontratupeko langile gisa izandako esperientzia profesionala, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunera arte.

Zenbaketa egiteko, lanean emandako aldietako egunak batuko dira, eta behin batura egin ondoren, hilabetetik beherako frakzioak alde batera utziko dira. Horretarako, 30 egun naturalen batura hartuko da hilabetetzat.

Vocales:

— Dña. Lourdes Sanjuan Artegain, jefa de Sección de Recursos Humanos y Planificación, como titular, y Dña. Matilde Corral Alza, técnica media de Gestión Administrativa de la Sección de Recursos Humanos y Planificación, como suplente.

— Dña. Jaione Arregui Arteche, enfermera del Centro Egogain, como titular y Dña. Begoña Gutiérrez Eizaguirre, directora del Centro Egogain, como suplente.

Secretario/a:

— D. Alfonso Acarreta Rodríguez, secretario técnico del Departamento de Gobernanza, como titular, y D. Mikel Ulazia Etxabe, técnico de administración general del Departamento de Gobernanza, como suplente.

El Tribunal Calificador se encargará del desarrollo del proceso y de la valoración de méritos.

El Tribunal podrá disponer la incorporación a sus trabajos de personas asesoras especialistas. Las personas asesoras especialistas, que tendrán voz pero no voto, limitarán su actuación a colaborar con el Tribunal en el ejercicio de sus especialidades técnicas.

El Tribunal, sin perjuicio de lo dispuesto en las presentes bases, ajustará su actuación a las reglas establecidas en los artículos 15 a 19 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

El Tribunal actuará con plena autonomía funcional, será responsable de la objetividad del procedimiento y garantizará el cumplimiento de las bases de la convocatoria. En su actuación se garantizarán los principios de independencia y discrecionalidad técnica.

Asimismo, de acuerdo con el ordenamiento jurídico, el Tribunal resolverá todas las dudas que surjan en la aplicación de las presentes bases y tomará los acuerdos necesarios para el buen orden en el desarrollo de la convocatoria, estableciendo los criterios que deban adoptarse en relación con los supuestos no previstos en las bases.

En cualquier momento del proceso selectivo, si el Tribunal tiene conocimiento de la existencia de aspirantes que no cumplen alguno de los requisitos exigidos para participar en la correspondiente convocatoria, previa audiencia de la persona interesada, deberá proponer su exclusión al órgano competente, comunicando las inexactitudes o falsedades formuladas por la persona aspirante en la solicitud de participación.

El Tribunal se reserva la posibilidad de solicitar durante el proceso la documentación original, así como, en casos de duda, cualquier documentación complementaria que considere necesaria para la correcta valoración de los méritos y/o el cumplimiento de los requisitos.

A efectos de comunicaciones y demás incidencias el Tribunal Calificador tendrá su sede en el Servicio de Función Pública, sito en la Plaza de Gipuzkoa, s/n de San Sebastián.

*8. Procedimiento de selección.*

El sistema de selección será el de concurso de méritos, valorándose los siguientes:

8.1. Servicios prestados en la Administración Publica.

Se valorará hasta un máximo de 180 puntos, a razón de 1 punto por mes (30 días), la experiencia profesional como personal funcionario de carrera o interino, o como personal laboral, en puestos de enfermero/a en una Administración Pública, hasta la fecha de publicación de esta convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

El cómputo se efectuará realizando la suma en días de los periodos trabajados y, una vez realizada la misma, despreciándose las fracciones inferiores a un mes. A estos efectos, se entenderá por mes el conjunto de 30 días naturales.

JAKIb7e2d37e-a7da-44fe-a5d2-9491b7dbaa96
EK\CV GAO-I-2021-01419

Izangaiek merezimenduak adierazi beharko dituzte prozesuan parte hartzeko eskaeran eta dagozkion egiaztagiriak erantsi. Ez dira balioetsiko, inola ere, eskaeran behar bezala adierazi ez diren merezimenduak, nahiz eta egiaztagiriak aurkeztu.

Beste administrazio publiko batzuetan erizainaren egindako lana egiaztatzeko, organo eskudunak emandako ziurtagiriak aurkeztuko dira. Horietan, zehaztuta agertuko dira honakoak: betetako lanpostuaren izena eta ezaugarriak lanpostuen zerrendaren arabera, sailkapen taldea, lan harremana eta lan egindako aldia.

Gipuzkoako Foru Aldundian bertan izan bada, nahikoa izango da hori alegatzea parte hartzeko eskaeran.

8.2. Euskara.

Hizkuntz eskakizun bat, edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren araberako maila baliokidearen ziurtagiria egiaztatzea, puntuazio hauei jarraikiz balioetsiko da:

— 3. eta 4. hizkuntza eskakizunak, edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C2 eta C1 mailak: 21,60 puntu.

